



Workshop on the Ypresian/Lutetian Boundary Stratotype (Ypresiar/Lutetiar mugako estratotipoari buruzko Workshop-a) Getxo, 200ko irailaren 25-27

Getxoko Gorrondatxe hondartzan azaleratzen den ebaki geologikoa Ypresiar/Lutetiar estai geologikoen arteko mugako estratotipoa izendatua izateko hautagaia, hots, adin horretarako munduko erreferentea.

Lurrak, eratu zenetik (gutxi gora behera 4.600 milioi urte direla) gaur egun arte jazo dituen gertaera nagusien erregistroa arroketa gordetzen du. Geologoek, gertakariz betetako historia luze hau berreraiki nahi dute eta horretarako lurrazalean azaleratzen diren material arrokatsuak ikertu eta "irakurri" egiten dituzte, gero jazoera guztiak Denbora Geologikoen Eskala izeneko denbora-eskeman ordenatu ahal izateko. Azken finean, ikerketa honen helburua Lurrak etorkizunean jazo ditzakeen gertaerak aurreikustea litzateke, ahal den neurrian balizko arriskuak ekiditzeko.

Mundu mailan balioa duen eskala hori tarteetan zatitzen da (Eonak, Erak, Periodoak, Epokak, Aroak) eta tarte hauen definizioa Estratigrafian oinarritzen da batez ere, hau da, sedimentuen metaketaren bidez eratzen diren arroka sedimentarioen geruzak, estratuak, aztertu eta interpretatzean.

Estratigrafiaren Nazioarteko Batzordearen (ICS, International Commission on Stratigraphy) ardurapean geratzen da hautatzea, mundu mailan ezagutzen direnen artean, aipatutako tarte edo "Estai" bakoitza aztertzeko zein den ebaki geologirik hoberena. Hautatutako ebakiei estratotipo deritze, eta izendapenetik aurrera mundu mailako erreferente izango dira tarteari dagokion adineko materialak aztertzeko.

Getxoko Gorrondatxe hondartzako itsaslabarretan azaleratzen diren arroka itsaso sakonean metatu ziren, gutxi gora behera duela 50 milioi urte. Euskal Herriko Unibertsitateko Estratigrafia eta Paleontologia Saileko ikerkuntza-taldekieen ustetan munduko ebaki geologikorik onena litzateke garai haietan, hau da, Ypresiar/Lutetiar mugan (Eozenoaren hasieran) eratu ziren materialak aztertzeko. Hori dela eta, aipatutako ikerkuntza taldeek Estratigrafiaren Nazioarteko Batzordeari proposatu zioten **Gorrondatzeko ebaki geologikoa Ypresiar/Lutetiar mugako estratotipo izendatzea**. Horretarako, *Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila*, *Getxoko Udala* eta *Euskal Herriko Unibertsitatearen* laguntzaz Getxoko Igeretxe hotelean, irailaren 25 eta 27 bitartean garatuko den ICS-aren nazioarteko bilera sustatu dute (<http://www.chu.es/paleogene/getxo2009/Home.html>), munduko ebakirik onena hautatzeko.

Azkenean hautatua suertatuko balitz, eta International Union of Geological Sciences-IUGSaren berrespena jaso ondoren, Gorrondatxe derrigorrezko bisita-tokia izango litzateke aipatutako adineko materialak aztertzen dituzten zientzialari ororentzat

DEITZAILAK:

Xabier Orue-Etxebarria. Euskal Herriko Unibertsitateko Paleontologia Katedraduna
Eustoquio Molina. ICSko Paleogeono lan-taldeko Zuzendaria

BATZORDE ANTOLATZAILEA:

Apellaniz, Estibaliz. Euskal Herriko Unibertsitatea
Baceta, Juan Ignacio. Euskal Herriko Unibertsitatea
Bernaola, Gilen. Euskal Herriko Unibertsitatea
Caballero, Fernando. Euskal Herriko Unibertsitatea
Molina, Eustoquio. Zaragozako Unibertsitatea
Orue-Etxebarria, Xabier. Euskal Herriko Unibertsitatea
Payros, Aitor. Euskal Herriko Unibertsitatea
Pujalte, Victoriano. Euskal Herriko Unibertsitatea

BATZORDE ZIENTIFIKOA:

Finney, Stanley. Kaliforniako Unibertsitatea, Long Beach, EE.BB.
Hardenbol, Jan, Global Sequence Chronostratigraphy, Texas, EE.BB.
Luterbacher, Hanspeter. Museo del Seminario, Bartzelona
Monechi, Simonetta. Università di Firenze, Italia
Pujalte, Victoriano. Euskal Herriko Unibertsitatea
Schmitz, Birger, Lund-eko Unibertsitatea, Suetzia.
Vandenbergh, Noel. Lovaina-ko Unibertsitatea, Belgika
Von Salis, Katharina. ETHZ, Suitza

ZIENTZIALARI GONBIDATUAK:

Alegret, Laia. Zaragozako Unibertsitatea
Arenillas, Ignacio. Zaragozako Unibertsitatea
Dinarés-Turell, Jaume. Ist. Nazionale di Geofisica e Vulcanologia, Roma, (Italia)
Drobne, Katica. Institute of Paleontology, ZRC-SAZU, Slovenia
Egger, Johann. Servicio Geológico de Austria. Viena, Austria
Finney, Stanley. Universidad Estatal de California en Long Beach, EE.BB.
Hardenbol, Jan, Global Sequence Chronostratigraphy, Texas, EE.BB.
Heilmann-Clausen, Claus, Geologisk Institut, Aarhus Universitet, Danimarka
Larrasoña, Juan Cruz. Instituto Jaume Almera, Bartzelona,
Luterbacher, Hanspeter. Museo del Seminario, Bartzelona
Martin, Maite. Euskal Herriko Unibertsitatea
Monechi, Simonetta. Università di Firenze, Italia
Ortiz Sainz-Aja, Silvia. University College of London, UK
Rodríguez Tovar, Francisco. Granadako Unobertsitatea
Schmitz, Birger, Universidad de Lund, Suetzia.
Sturbaut, Etienne. Katholieke Universiteit Leuven. Belgika
Tori, Flavia. Università di Firenze, Italia
Tosquella, Josep. Huelva-ko Unibertsitatea
Vandenbergh, Noel. Lovaina-ko Unibertsitatea, Belgika
Von Salis, Katharina. ETHZ, Suitza